

Konpainia gehiago eta ibilbide berria

Gimnasia erritmikoko taldea joango da danborradako karrozan, eta geldialdi bakoitzeko koreografia bat aurkeztuko dute



'ETA KITTO' ALDIZKARIA



Eibarko ikastetxe guztietako ikasleek hartzen dute parte haurren danborradan.

24:00ETAN puntuan irtengo da danborrada, baina bihar, Untzaga plazatik irten beharrean, Urkizutik hasiko da. Beraz, ibilbidea laburragoa izango da, herriari buelta osoa eman beharrean Plaza Barriraino helduko baitira danborradako kideak, Juan Mari Lejardi Pastor-ek gidaturik.

Aurten bederatzi konpainia

izango dira guztira, iaz baino bi gehiago. «San Andres parrokian bi talde antolatu dira, eta baserritar jantzita irtengo dira», azaldu du danborradaren antolatzaileetako batek, Jabier Zorrakinek. «Karrozan, berriz, gimnasia erritmikoko taldea joango da, eta geldiane ba-koitzean koreografia saio txiki bat egingo dute», gehitu du gero.

Geldiunea Deportibon

Toribio Etxeberrian, Deportibo parean egingo da aurtengo danborradako saio nagusia. Bertan, Iñaki Arriolak diana irakurriko du eta Goruntz abesbatzak saioa eskaini. Herriko asto *Pantxika* ere ez da falta izango, berak bultzatuko baitu urtero bezala kanoia, gero De-

Aritz Bilbao gaztea izango da aurtengo Danbor Nagusia haurren danborradan. Berak irakurriko du pregoia bihar, Deportibo parean

portibo parean tiro egin ahal izateko.

72 urte igaro dira Eibarko Batzokiak danborrada atera zuenetik. Gerora, gerra ostean, Alperak elkarteak hartu zuen, eta 1976. urtetik orain arte Amalurren esku dago antolaketa.

Baita haurrena ere. Biher izango da hori, 18:30etan Urkizutik hasita. Ikastetxe guztietako umeek Deportiborainoko bidea egingo dute. Bertan, aurtengo Danbor Nagusiak, Aritz Bilbaok, pregoia irakurriko du.

Ez dira alferrik ibili entsegatzen parte hartuko duten 500 haurrak; izan ere, Sarriegi maisuaren bederatzi pieza joko dituzte, nagusiek baino sei gutxiago soilik.

'Presuak bisitatzea goiaz' jolasa egingo da larunbatean

Herrian zehar jarritako oztopo eta probak gainditu beharko dira jolasean



EGITARAU ofiziale-tik kanpo ere antolatu dituzte beste zenbait ekitaldi. Gazte ekimeneko gazteak pre-soak ete errefuxiatuak bisitatzeke jolas moduko bat antolatu dute: *Presuak bisitatzea goiaz* izeneko jolasa.

Larunbat honetan izango da jolasa, Plaza Barrian hasita (Galeria-seko parkean). 17:00etan elkartuko dira partaideak, lauzpabost lagunek taldeetan. Taldeak egin bezain laster, zozketa egingo da jakiteko talde bakoitzak zein preso edo errefuxiatu bisitatu beharko duen.

Eibarko herrian zehar hainbat arrasto egongo dira ezkutatuta, eta haiek lortzeko probak egin beharko dituzte taldekideek. Esaterako, oztopo bat gainditu eta hurrengo pausoa emateko hainbat NA zenbaki lortu beharko ditu talde batek. Edo herrian zehar moztortuta ibiliko diren pertsonaia ezkutuek—guardia zibilak, kasu—eskatuko dizkieten frogak bete beharko dituzte. Lortuz gero, hurrengo proba igaro ahal izango da taldea, eta hala jarraituko du dagokion presoa edo errefuxiatua bisitatzea lortu arte.

Dena den, informazio gehiago jaso nahi duena Eibarko Herriko Tabernara joan daiteke (Txirio kalea).



GARATE Grabatuak
ELEKTROHIGADURA - INDUSTRIARAKO
MARKAKETA TRESNAK

ESKULAN

Aldatze, 3-behea - EIBAR
Tel.: 943.70.24.05 - 943.20.31.03 - Faxa: 943.70.24.05

BoLiNTXo
OKINDEGIA
GOZOTEGIA



Tel.: 943 76 16 93 - BERGARA / Tel.: 943 79 63 42 - ARRASATE / Tel.: 943 20 40 66 - EIBAR

San Andres
GOZOTEGIA

Bidebarrieta, 28

943.20.79.73

EIBAR

Etxez etxeko
banaketa

Jai zoriontsuak
eibartar guztioi



Reposteria - Coxokiak - Txokolateak - Etxez etxeko banaketa


Julian Etxeberria, 6 - EIBAR - © 943.20.24.51

KANTABRIA
jatetxea

Ezkontzak, komunioak, bataioak
Arrateko inguru paregabean



Tel.: 943 12 12 62 / 943 12 73 34 - ARRATE



GARAIONDO-BASTIDA
Burdindenda

Barakaldo, 9 - EIBAR - Tel.: 943.12.02.08 / 943.12.02.12

ARRATE
PINTURA
BILTEGIA

PINTURA INDUSTRIALAK

KARROZERIAK
BERNIZAK ORO HAR

Arane z/g - EIBAR
Tel.: 943.20.41.04
Faxa: 943.70.06.89